

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAK
UPV/EHUn 2022an "JAKINTZA SORTZEKO
PROIEKTUEN" DEIALDIAN EMANDAKO LAGUNTZEI
LOTUTAKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO
KONTRATAZIO APARTEKO DEIALDIA**



ERABAKIA, 2024ko URTARRILAREN 18(e)koa, IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, NON ARGITARATZEN BAITA, ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAK UPV/EHUn 2022an "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUEN" DEIALDIAN

EMANDAKO LAGUNTZEI LOTUTAKO IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO APARTEKO DEIALDIA

Azaroaren 7an, ikerketako Errektoreordetzaren 2023ko urriaren 18ko ebazpena argitaratu zen, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak UPV/EHU 2022an "Jakintza sortzeko proiektuen" deialdian emandako laguntzei lotutako ikertzaileak prestatzeko. Ikertzaileak prestatzeko kontratuen 2023. urteari dagokion deialdi hau urriaren 27ko CIN/1025/2022 Aginduaren babesean egin da, zeinaren bidez onartzen baitira, Ikerketa Zientifiko eta Teknikorako eta Berrikuntzarako 2021-2023 Estatuko Planaren zenbait programari eta azpiprogramari dagozkien laguntza publikoak (2022/10/27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) emateko oinarri arautzaileak, programa eta azpiprograma horien kudeaketa Estatuko Ikerketa Agentziari dagokiolarik.

Deialdi hau argitaratzerakoan aintzat hartu dira, batetik, "Jakintza sortzeko proiektuei" laguntzak emateko prozedura 2022. urterako aurretiazko izapidetzearen deialdia onartzen duen Agindua eta, Zientzia, Teknika eta Berrikuntzarako 2021-2023 Estatuko Planaren esparruan (2023/01/03ko Estatuko Aldizkari Ofizialaren laburpena) proiektu horiei lotutako doktorego aurreko ikertzaileak prestatzeko jardunei eta, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko irailaren 5eko 17/2022 Legean eta Prestatzen ari diren Ikertzaileen Estatutua onartzen duen martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuan ezarritako esparru juridikoa (aurrerantzean, Ministerioaren Agindua).

Deialdi hau Estatuko Ikerketa Agentziak finantzatzen du (MICIN/AEI/10.13039/501100011033) eta Europako Gizarte Funtsaren baterako finantzaketarekin, Ministerioaren Aginduan adierazten den bezala.

2024ko urtarrilaren 16an ebaluaziorako onartu eta baztertu diren eskaeren behin betiko zerrenda argitaratu egin da eta eskainitako lau proiektu hutsik geratu dira, horrexegatik argitaratzen da aparteko deialdi hau haiek betetzeko.

1. oinarria. HELBURUA

Deialdi honen xedea da ikertzaileak prestatzea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) doktore titulua lor dezaten, deialdi honen *1. eranskinean* deskribatutako ikerketa proiekturen bati lotuta.

Eranskin horretan deskribatutako proiektuak bat datoz «Jakintza sortzeko proiektuak» izeneko deialdiaren ebazpenarekin eta proiektu horiei lotutako doktorego aurreko ikertzaileak prestatzeko jarduketekin. Ebazpena urriaren 27ko CIN/1025/2022 Aginduaren babesean onartu zen (Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 29an), zeinaren bidez onartu baitziren, Ikerketa Zientifiko, Tekniko eta Berrikuntzarako Estatuko 2021-2023 Planeko programa eta azpiprograma batzuei dagozkien laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak, programa eta azpiprograma horien gestioa Estatuko Ikerketa Agentziari dagokiolarik.

Deialdi honen babesean kontratatutako ikertzaileen prestakuntza, doktorego aurreko kontratuen bidez egingo da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen (aurrerantzean, ZTBL) 21. Artikuluan, ZTBL aldatzen duen irailaren 5eko 17/2022 Legean eta Langileen Estatutuan ezarritakoarekin bat etorrita.

2. oinarria. ARAUBIDEA

Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak kontratatzeko deialdi hau bat dator, bertan berariaz jaso ez diren alderdiei dagokienez, UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdi orokorrean ezarritako oinarriekin, Gobernu Kontseiluak 2019ko martxoaren 7an onartuta.

3. oinarria. ONURADUNAK ETA GAIAK

Deialdi honetan eskaintzen diren laguntzen onuradun izan daitezke deialdi honetako 4. oinarrian deskribatutako baldintzak betetzen dituzten unibertsitateko tituludunak, 1. eranskinean zerrendatutako eta deskribatutako proiektuen ikertaldeetako kide diren pertsonetako baten zuzendaritzaren edo zuzendaritzakidearen menpe, doktorego aurreko kontratua.

Doktorego tesien gaiak eta laguntza bakoitzerako baldintza espezifikoa 1. eranskinean zerrendatutako proiektuen zerrendan ere jasoko eta deskribatuko dira.

Hautagai bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du. Eskabide bakoitza I. eranskinean jasotako zerrendako proiektu bakar bati buruzkoa izango da. Ikertzaile batek bi proiektu edo gehiagotarako egindako eskaerak aldi berean aurkeztuz gero, eskatzailea proiektu guztietatik kanpo geratuko da.

4. oinarria. ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

4.1. Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte **eskarria aurkeztzen denean**:

- a. UPV/EHUko doktorego programa batean matrikulatuta egotea 2023/2024 ikasturtean, eskatutako proiekturako 1. eranskinean zerrendatutakoekin bat datorrena.

Eskabidea aurkeztu den unean UPV/EHUko doktorego programa horretan matrikulatuta ez dauden hautagaiak behin-behinean onartu ahal izango dira, baldin eta kontratua formalizatzen denean doktorego programan matrikulatuta egoteko moduan badaude. Egoera hori berariaz adierazi behar da eskaeran.

- b. 6,5 puntutako batezbestekoa behar da izan lizentziatura edo, doktoregorako sarrera titulu moduan aurkeztutako graduako espediente akademikoan.

Espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatzeko, doktoregora sartzeko titulutzat aurkeztutako lizentziatura edo gradua besterik ez da kontuan hartuko, beste espezialitate batzuetako irakasgaietan lortutako notak eta masterreko ikasketetako notak aintzat hartu gabe.

Espediente akademikoak 1 eta 10 arteko batez besteko nota jasoko ez balu, espediente akademikoaren batez bestekoa kalkulatu egingo da irakasgai bakoitzean lortutako zenbakizko kalifikazioa biderkatuz irakasgai bakoitzaren kreditu kopuruarengatik eta lortutako produktu guztiak batu eta kalifikazioaz gainditutako kredituen guztirako kopuruarengatik zatituz.

Unibertsitateak kalifikatu ez dituen baliokidetu edo egokitutako irakasgaien kasuan, baldin eta irakasgaiok baliokidetu edo egokitu baditu, jatorrizko ikasketetan edo ikastegian lortutako kalifikazioak konputatuko dira, beti ere dokumentalki egiaztatuta. Dokumentalki egiaztatu ezin balira, nahiko kalifikazioaz gainditu direla ulertuko da.

Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileen kasuan, ANECA Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Nazionalaren ziurtagiri ofizialean agertzen den espediente akademikoaren batez bestekoa hartuko zaie aintzat.

4.2. Eskatzaileek baldintza guztiak beteta izan beharko dituzte **kontratua sinatzerakoan**:

- a. Eskabidean agertzen diren tesi zuzendarikideekin batera UPV/EHUko doktorego programan matrikulatuta egotea 2023/2024 ikasturtean.
- b. Europar Batasuneko herritarrak ez diren pertsonen kasuan, Espainian lan egiteko aurretiazko administrazio baimena izatea, ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

Era berean, Europar Batasunetik kanpoko ikertzaile atzerritarrak kontratatuzeko, beharrezkoa izango da Espainian bizitzeko eta lan egiteko baimena lortzea, indarrean dagoen arautegiaren arabera.

Kontratua sinatzen den egunean hautagaiak baldintza horietakoren bat betetzen ez badu, kontratua ezin izango da formalizatu.

4.3. Honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonak ezin izango dira eskatzaile izan, ez eta deialdi honen bidez sustatzen den kontratazioan sartu ere:

- a. Doktorego aurreko prestakuntzan abiatuta izatea, doktorego aurreko prestakuntzarako beste laguntza batzuen bidez, Ikerketa Zientifiko, Tekniko eta Berrikuntzarako 2021-2023 Estatuko Planaren esparruan emandako doktorego tesi baten bidez, aurreko plan nazionaletako baten bidez, eskualde planen deialdiren baten bidez, edo Euskal Herriko Unibertsitatearen deialdi baten bidez.
- b. Doktore titulua izatea, Espainiako edo atzerriko edozein unibertsitatek emanda.
- c. Hamabi hilabetetatik gorako doktorego aurreko kontratu bat eduki izana eskaera aurkeztu baino lehen.

5. oinarria. KONTRATUEN EZAUGARRIAK.

5.1. UPV/EHUk lan kontratu bat formalizatuko dio laguntzaren onuradunari, ZTBLren 21. artikulua araututa. Kontratututako langileak prestakuntzan dauden doktorego aurreko langile ikertzailetzat hartuko dira. Kontratututakoa, beraz, UPV/EHUren sail, institutu edo guneren bati atxikiko zaio, doktorego tesia bertan egingo duelarik.

5.2. Kontratua lanaldi osokoa izango da eta doktorego tesia egitea izango du xede, 1. eranskinean zerrendatutako proiektuetako baten esparruan.

5.3. Kontratuak gehienez ere lau urteren iraupena izango du, eta kontratatutako ikertzailea UPV/EHUko lanpostuan hasterakoan hasiko da kontratuaren gauzatze epea, Ministerioaren Aginduaren 25.7 artikuluan ezarritako etetei eta betearazpen epea luzatzeari buruz xedatutakoari kalterik egin gabe.

Hala ere, kontratua % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duen pertsona batekin hitzartzen denean, kontratuaren gehieneko iraupena sei urtetakoa izan liteke, luzapenak barne, ikerketa jardueraren ezaugarriak eta jardueraren barruan izan litezkeen zailtasunak kontuan hartuta.

Langile bat ere ezin izango da kontratatu modalitate honen bidez, erakunde berean edo beste erakunde batean, lau urte baino gehiagotarako, luzapenak barne, salbu eta, aurreko atalean adierazitako moduan, desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan; zeinetan denbora ezin izango den sei urtetatik gorakoa.

5.4. Aldi baterako lanerako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzioa edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

5.5. Deialdi honetarako formalizatzen diren kontratuen ordainsaria Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 21. artikulua eta prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileen estatutua onartzen duen martxoaren 1eko 103/2019 Errege Dekretuak arautuko dute.

5.6. Deialdi honen bidez aukeratutakoek ez dute UPV/EHUrekin lan kontratuaren bidezko harreman egonkorrik izango eta aldi baterako kontratu harreman hori amaituko da kontratuaren iraupenari dagokion aldia igarotakoan edo 12. oinarrian ezarritako beste edozein arrazoi gertatzerakoan.

Bestalde, kontuan hartuko da UPV/EHUko Irakasle eta Ikertzaileen Akordioa, aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeari buruzkoa, doktoratu aurreko kontratuaren modalitatean eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sisteman sartzeko kontratuaren modalitatean (Gobernu Kontseiluaren 2021eko abenduaren 16ko akordioa), non kolektibo horrek jaso beharreko gutxieneko ordainsaria ezartzen baita.

6. oinarria. KONTZEPTU FINANTZAGARRIAK

6.1. Deialdi honen bidez, kontratazio kostuak finantzatuko dira, kontratuaren amaierari dagokion kalte ordainaren kostua eta, I+G zentroetan egonaldiak egiteak eta doktorego ikasketetako matrikulak eragindako gastuak barne. Zehazki, Ministerioaren Aginduaren 12. eta 13. artikuluetan arautzen dira kontzeptu finantzarriak, gastu finantzarritzat honako hauek jo dituelarik:

- a. Ordainsari gordinak.
- b. Enpresaren kontura egin beharreko gizarte segurantzako kotizazioa.
- c. I+G zentroetan egonaldiak egitearen ondoriozko gastuak.
- d. Doktorego irakaskuntzetako matrikula gastuak.

6.2. I+G zentroetan egonaldiak egiteak eta doktorego ikasketetako matrikulak eragindako gastuak estaltzeko laguntzari dagokionez, laguntzaren zenbateko osoa 6.860 eurotako izango da, eta Ministerioaren Aginduaren 12.5 artikuluan ezarritakoari egokitu beharko zaio.

6.860 eurotako laguntzari lau ikasturtetako doktoregoko irakaskuntzen matrikula gastuen finantzaketa kenduko zaio, gastu hau ezin izango delarik Euskal Autonomia Erkidegoak unibertsitate publikoetarako ezarritako unibertsitateko ikasketa zerbitzuak emateagatiko prezio publikoen gehieneko zenbatekoetatik gorakoa. Ateratzen den zenbatekoa izango da I+G zentroetan egonaldiak egitearen ondoriozko gastuak ordaintzeko erabili ahal izango dena.

Egonaldiek gutxienez hilabeteko iraupena izan beharko dute, etenik gabe.

Egonaldiak finantzatzeko laguntza gehigarriari dagokionez, gehieneko gastu finantzarriak bi kontzeptu izan ditzake bere baitan:

- a. Ostata eta mantenua:

Mantenu eta ostata zenbatekoak hilean 1.500 eurotakoak izango dira (50 euro eguneko) I+G zentro nazionaletan egiten diren egonaldien kasuan, eta 1.950 eurotakoak (65 euro eguneko) atzerriko I+G zentroetan egiten diren egonaldien kasuan. Gastuak egiaztatzeko, harrerako I+G zentroak emandako egonaldiaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

- b. Lokomozioa, bisatua eta istripu eta medikuntza aseguruak:

- i. Joan-etorriak egonaldiaren helmuga Espainian dagoenean, 150 euro.
- ii. Atzerriko egonaldietarako joan-etorriak, 450 euro helmugako lekua Europako herrialde bat denean eta 1.000 euro helmugako lekua munduko gainerako herrialde bat denean.

Lokomoziotik eratorritako gastu finantzagarriei dagokienez, zerbitzuagatiko kalte ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuan 2. taldeari ezarritako mugak aplikatuko dira. Lokomozioa ibilgailu partikularrean egin ahal izango da eta, kasu horretan, ibilgailu partikularra erabiltzeagatiko kalte ordaina abenduaren 1eko EHA/3770/2005 Aginduan aurreikusitakoaren arabera izango da, zeinaren bidez berrikusten baita, maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuan ezarritako ibilgailu partikularra erabiltzeagatiko kalte ordainaren zenbatekoa.

Prestatzen ari diren doktorego aurreko ikertzaileek, laguntza hauen babespean atzerrira joaten direnek, nahitaez izan beharko dute bidaiako laguntza aseguru bat, gaixotasunagatiko eta istripuagatiko osasun estaldurarekin eta aberriratze estaldurarekin, lekualdaketa Europako Osasun Txartelari baliorik aitortzen ez dioten herrialdeetara egiten bada. Horren kostua egotzi ahal izango zaio laguntza honi. Lekualdaketa Europako Esparru Ekonomikoko lurralde batera, Erresuma Batura edo Suitzara bada, Europako osasun txartela indarrean duela bidaiatu beharko da. Ez da gastu hautagarritzat hartuko adierazitakoez besteko aseguruaren kostuak, ez eta bisatua lortzeko joan-etorrien gastuak ere.

6.3. Bai kontratua bai deialdi honetan finantzatutako laguntza, legeriak ezarritako PFEZren atxikipenen mende egongo dira.

6.4 Nolanahi ere, laguntzak emateko, ezinbestekoa izango da EZAGUTZA SORTZEKO PROIEKTUEI 2022rako laguntzak emateko Ebazpenean ezartzen den finantzaketa-proposamena, bai eta proiektu horiei lotutako doktoratu aurreko ikertzaileak prestatzeko jarduerak ere, 2021-2023 Ikerketa Zientifiko-Teknikoa eta horren Transferentzia Bultzatzeko Estatuko Programaren esparruan.

7. oinarria. ESKARIAK AURKEZTEKO ERA:

7.1. **Eskaria aurkezteko tokia eta era:** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua araber, dokumentuak honetara aurkeztu beharko dira:

- a) UPV/EHUko erregistro elektronikoa, <https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico> URL helbidean, lehenik eta behin, eskabidearen 'norako' atalean, Ikerketaren arloko Errektoreordetza aukeratuz, eta, bigarrenik, "Deialdien Ikerketa Kudeaketa (U02000256)", zehaztu behar delarik, 'Eskatzen du' atalean "PIF 2023" adieraziz.
- b) Posta bulegoetan, bertako ORVE zerbitzuen bidez: "Zure dokumentuak berehala erregistratzea eta bidaltzea herrialdeko administrazio publikoetara".
- c) Sektore publikoko edozein erakundetako erregistroetarako arreta bulegoetan.

Aurreko atalean deskribatutako a) aukera erabiliz gero, deialdian ezarritako eskabide inprimakia aurkeztu beharko du eskatzaileak, behar bezala beteta, bai eta bertan eskatutako gainerako dokumentazioa ere. Sinadura bat edo gehiago behar dituzten dokumentu guztietan,

sinadura horiek elektronikoak izan beharko dute beti, eta aitortutako ziurtagiri baten bermea izan beharko dute.

Ordea, b) edo c) aukeretako bat erabiliz gero, dokumentazioa A4 formatuan aurkeztuko da, agerian, ertz lauekin eta azalez tatu gabe. Sinadura bat edo gehiago behar dituzten dokumentu guztietan, jatorrizkoak izan beharko dute beti (eskuz eginak). Postetxeko edo sektore publikoko edozein erakundetako erregistroen arloko arreta bulegoetako arduradunaren egitekoa izango dira hautagaiak aurkeztutako dokumentazioa digitalizatzea eta organo eskudunari bidaltzea. Horretarako, adierazi beharko dira unitate Izapidegilea (U02000256) eta FPI 2023 deialdiaren erreferentzia.

Izapidea egin ahal izateko, izangaiak identifikazio agiri ofizial batekin joan beharko du eta, hala balegokio, kasuan kasuko ordezkari baimenarekin (ordezkatzeko baimena), eskatutako dokumentazioarekin batera.

Salbuespenez, eta Espainiako lurraldean bizi ez diren hautagaiek ez beste inork aurkeztu ahal izango du eskabidea posta elektronikoz, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera bidaliz, gailan "PIF 2023" adierazita. Horrez gain, eta prozesuan sinadurak egiazkoak direla bermatzeko, eskatzaileak paperean bidaliko du ondoko helbide honetara, posta ziurtatuaren bidez eta eskabideak aurkezteko epearen barruan, eskabide imprimakia, bai eta eskuz egindako sinadurarik lukeen beste edozein dokumentu: *UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetza (Errektoregoaren eraikina), Sarriena auzoa z.g., 48940 Leioa, Bizkaia*.

Espainiako lurraldean bizi direlarik, bide horretatik jasotzen diren eskaerak "aurkeztu ez direla" ulertuko da, eta automatikoki geratuko dira prozesutik kanpo.

7.2. Eskabideak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 23an hasiko da, eta 2023ko urtarrilaren 29an amaituko da, 24:00etan (Espainiar penintsulako ordua).

7.3. Beharrezko dokumentazioa: Ondoko dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a) **Eskabide imprimakia**, IA Eren webgunean eskuragarri dagoen eredu normalizatuarekin bat etorruta. Bertan, deialdi honen 1. eranskinean deskribatutako ikerketa proiektua identifikatuko da, doktorego aurreko kontratua barne.
- b) Eskatzailea **doktorego programan matrikulatuta edo onartuta** dagoela **egiaztatzen duen dokumentazioa**.
- c) Doktoregora sarbide ematen duen titulazio edo titulazioetako **ziurtagiri akademiko pertsonala**, non lortutako kalifikazio guztiak eta horiei dagozkien datak agertzen diren. Kasuan kasuko ikasketak UPV/EHU n egin dituzten hautagaiek ez dute dokumentu hau aurkeztu beharrik.

Atzerrian zatika edo osorik egindako ikasketen kasuan, gainera atzerrian egindako unibertsitate titulazioen batez besteko nota baliokidearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, Hezkuntza eta Lanbide Hezkuntzako ministerioak emana. Agiri hau ondoko esteka honen bidez eskura daiteke:

<https://sede.educacion.gob.es/sede/login/inicio.jjsp?idConvocatoria=818>

- d) Eskatzailearen **curriculum vitae**a, curriculum vitae normalizatuaren (CVN) formatuan. Eskatzaileek online editatu ahal izango dute <https://cvn.fecyt.es/editor/> estekari klik eginez.
- e) **NANaren, AIZren edo pasaportearen** fotokopia.
- f) 4.3 oinarrian eskatutako betebeharrak betetzen direlako erantzukizunpeko aitorpena, non interesatuak adierazten duen inoiz kontrataturik egon ez dela Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 14/2011 Legeko 21. artikuluan aurreikusitako doktorego aurreko kontratu modalitatearen bidez, eta, egon baldin bada, zenbat egunez.

8. OINARRIA. ONARPEN, EBALUAZIO ETA HAUTAKETA PROZESUA

8.1. **Onarpena.** Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, jasotako eskabideen hautagarritasuna aztertuko da, 4. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla bermatuz.

IAEk webgunean argitaratuko du onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko ebazpena. Eskatzaileek 5 egun balioduneko epea izango dute, aipatutako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabidea zuzentzeko edo eskatzen zaizkien dokumentuak aurkezteko. Zuzenketa hori deialdi honen 7. oinarrian eskabideak aurkezteko ezarritako bide berberetatik egin beharko da.

Epe hori igaro eta aurkeztutako dokumentazio berria aztertu ondoren, IAEk onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko du, eta ebaluatuko direnak adieraziko ditu.

8.2. **Ebaluazioa.** Eskaerak Ministerio Aginduaren 12. artikuluan adierazten den moduan ebaluatuko dira, honako irizpide hauei jarraituz:

1. irizpidea. Hautagaiaren ibilbide akademikoa eta/edo zientifiko-teknikoa (gehienez 50 puntu).

1. azpirizpidea.a): Ekarpen zientifiko-teknikoak (45 puntu, gehienez). Izangaiaren espediente akademikoa eta beste curriculum merezimendu batzuk baloratuko dira, bai eta horiek prestakuntzaren eta lanbide esperientziaren arabera egin beharreko zereginetara egokitzen diren ere. Zientzia aldizkarietan, liburu edo liburu kapitulu zientifiko eta teknikoetan argitaratutako artikuluetan egindako ekarpenen garrantzia ere baloratuko da, barne direlarik sarbide irekiko argitalpenak, emandako patenteak edo lizentziadunak, kongresuetan aurkeztutako lanak, prestakuntzako, kudeaketako, teknologia transferitzeko eta zientzia zabaltzeko jarduerak, lortutako sariak, aipamenak eta goraiipamenak, eta, oro har, garatutako ikerketa jardueraren alderdi desberdinen garrantzia balioestea ahalbidetzen duen beste edozein ekarpen.

1. azpirizpidea.b): Mugikortasuna eta nazioartekotzea (gehienez 5 puntu). Baloratuko da hautagaiak estatuko eta nazioarteko zentroetan eta/edo industria sektorean egindako egonaldiek ikerketa ibilbidean duten garrantzia eta eragina, egonaldiaren harrera erakundearen prestigioa eta bertan garatutako jarduera kontuan hartuta. Era berean, baloratu ahal izango dira nazioarteko lankidetzaren bidez argitaratutako, patentatutako edo ustiapeneko ikerketa emaitzak, bai eta nazioarteko programa eta proiektuekin lotutako ekintzetan izandako parte hartzea eta horietan izandako zuzeneko inplikazioa ere.

2. irizpidea. Hautagaiaren egokitzapena egin beharreko ikerketa jardueretara (50 puntu, gehienez). Balioetsiko da izangaia egokitzen den, bere prestakuntzaren eta esperientzia aintzat hartuta, garatu beharreko programa, proiektu edo ikerketa jardueretara. Horretarako, kontuan hartuko da proiektua egiteak bere ikerketa karrerarako izango duen balio erantsia, bai eta ikastegi zein zentroari eta talde hartzaileari ekarritako balioa ere.

Deialdi honen 1. eranskinean deskribatutako ikerketa proiektu bakoitzak berariazko ebaluazio batzorde bat izango du, prestatzen ari diren ikertzaileak kontratatuko dituen, batzordeburu izango delarik jarduketari erantzuten dion proiektuko ikertzaile nagusia, jasotako proposamenak ebaluatzeko ardura izango duena.

Horretarako, IAeren Ikerketa Zuzendaritza Nagusiak batzorde horri bidaliko dio behin betiko onartzen diren eskaerei buruzko dokumentazioa. Ebaluazio batzorde bakoitzak gehienez 5 egun balioduneko epea izango du, dokumentazioa jasotzen duenetik zenbatzen hasita, jasotako eskabide bakoitzerako banakako ebaluazio zientifiko teknikoaren txostena egiteko, aurreko puntuan adierazitako irizpideen arabera. Ezarritako epea amaitu ondoren, batzordeak jasotako eskabideen lehentasun proposamena igorriko dio IAeri, eta, bertan, hautatutako pertsona zein den adieraziko du, bai eta uko eginez gero erreserban geratuko lirakekeen proposamenen ordena eta puntuazioa ere.

IAEk ebaluazio txostenak eta eskaintako plaza bakoitzerako ebaluazio batzordeak proposatutako lehentasun dokumentua helaraziko dizkio Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeari (aurrerantzean, IGBB).

8.3. Erabakia. Jasotako dokumentazio guztia aztertu ondoren, IGBBk baliozkotuko du egindako ebaluazioak ezarritako ebaluazio irizpideetara egokitzen direla eta ebaluazio batzorde bakoitzak egindako hautaketa berretsiko du.

IGBBk behin betiko ebazpen proposamen bat formalizatuko du IAeren webgunean argitaratzeko, argitalpen hau interesdunei egin behareko jakinarazpena izanik.

Nolanahi ere, edozein kontratu eman ahal izateko, onuraduna eskabidean adierazitako UPV/EHUko doktorego programan onartu eta matrikulatu beharko da.

8.4. Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, baina inola ere aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakiok erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

9. oinarria. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratuak formalizatu baino lehen, esleipendunek laguntza lortzeko alegatu dituzten betebeharrak eta merezimenduen egiazkotasuna agertu beharko dute. Egiaztatu ezin balute, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak laguntza ukatzeko ebazpena emango du.

Kontratuen adjudikaziodunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte IAEn:

- a) Eskameran adierazitako doktorego programan matrikulatu izanaren ordainagiria.
- b) Deialdi honen esleipendun izateko betebeharrak onartzen dituen agiria, tesiaren zuzendarien eta saileko, institutuko edo atxikitze guneko zuzendariaren oniritziarekin.
- c) Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia dituen.
- d) Lanean hasi izanaren ziurtagiria.
- e) Kasuan kasuko ikerketako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.

Dokumentazio hau aurkeztu epea eman eta ezetsitako laguntzen behin betiko ebazpenean adieraziko da. Eskatutako agiriak epe barruan aurkezten ez badira, kontratuaren formalizatzeari uko egiten zaiola ulertuko da.

Kontratuak formalizatzeko eta sailetan, institutueta edo zentroetan hasteko data gehienez ere 3 hilabeteko epean izan behar da, doktorego aurreko ikertzaileak prestatzeko jardura horiek eragin zituzten proiektuak emateko ebazpena Estatuko Ikerketa Agentziaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kontratuak noiz formalizatuko diren eta, sail, institutu zein ikastegian noiz lanean hasteko eguna, deialdia ebazten duen behin betiko ebazpenean adieraziko da, unean uneko hileko lehenengo egunean izango delarik ezinbestean.

Esleipenduna ez balitz agertuko adierazitako egunean kontratua sinatzeko ekitaldira edo sail, institutu edo ikergunean lanean hasiko, ulertuko da doktorego aurreko kontratuari uko egiten diola.

Eskaria ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko tramitea eten egingo da, edo hala dagokionean, kontratua deuseztatu egingo da.

Laguntza gauzatu bitartean kontratua azkentzen bada edo kontratatutako pertsonak atzera egiten badu, UPV/EHUK beste pertsona bat ebaluatu, hautatu eta kontratatu ahal izango du, Ministerioaren Aginduaren 12.1 oinarrian ezarritako baldintzak betez.

10. oinarria. BATERAEZINTASUNEN ERREGIMENA

Bateraezintasunen araubidea Ministerio Aginduaren 16.4 eta 16.5 artikuluetan dago araututa.

11. oinarria. JARRAIPENA

11.1. Deialdi honen arabera kontratatutako langileek egindako lanaren jarraipen zientifiko-teknikoa IKZri dagokio, eta horretarako prozedura egokiak ezarriko ditu. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituen organo, batzorde edo langile adituak izendatu ahal izango ditu, kontratuaren aplikazioaren jarraipen eta egiaztapen jarduketa egokiak egiteko eta egokitzen jotzen duen informazio osagarria aurkezteko eskatzeko.

11.2. Oro har, dokumentu horiek deialdi honetarako argitaratzen diren ereduaren arabera beteko dira eta kontratuak indarrean ematen dituen urteetako bakoitzaren ondorengo lehenengo hilabetean aurkeztuko zaizkio IAeri.

11.3. Kontratua amaitu eta hilabeteko epean, amaierako txosten bat aurkeztuko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzan, kontratuaren indarraldian zer jarduera egin diren ezagutarazteko.

11.4. I+G zentroetan egonaldiak egitearen ondoriozko gastuak estaltzeko laguntzari dagokionez, laguntza onuradunei emango zaie egonaldia egin den dataren arabera, zentroan hasi dela egiaztatu ondoren.

I+G zentroetan egonaldiak egiteko laguntza justifikatzeko, kontratatutako pertsonak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzan (Giza Baliabideen Atala), egonaldia amaitu eta hamabost egunetako epean:

- a) Gastuak likidatzeko justifikazio kontua, dagozkion gastuen egiaztagiriekin.
- b) Harrerako zentzoko arduradunaren ziurtagiria, egonaldiaren hasiera eguna eta amaiera eguna berariaz jasotzen dituen.
- c) Egonaldiaren azalpen memoria laburra, gehienez 500 hitzetakoa, tesi zuzendariaren adostasunaz. Bertan adieraziko da egonaldiaren emaitza.

Egonaldia gauzatzen ez bada, edo ezin badu justifikatu, kontratatutako pertsonak itzuli beharko du jasotako zenbateko osoa.

Era berean, egindako egonaldia emandakoa baino laburragoa bada, kontratatutako pertsonak gauzatu gabeko aldiari dagokion laguntzaren zati proportzionala itzuli beharko du.

Behar ez bezala jasotako zenbatekoak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzeko arautegian ezarritakoaren arabera itzuliko dira, eta kontratatutako pertsonaren nominan atxikiz ordaindu ahal izango da.

12. oinarria. EMANDAKO EBAZPENA ALDATZEA

12.1. Emandako ebazpena aldatzeko arrazoiak Ministerioaren Aginduaren 25. artikuluan daude araututa.

12.2. Doktorego aurreko laguntzen kasuan, erakunde onuradunek eskatu ahal izango dute jarduera gauzatzeko epea eten eta luza dadin, ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21.c) artikuluaurrean laugarren paragrafoan jasotako egoera edo baliabideren batengatik eten den kontratuaren iraupenagatik.

Haurdunaldian zehar haurdunaldiari loturiko aldi baterako ezintasunen kasuan, eskatu ahal izango da aldi baterako ezintasunak iraun bitartean, jarduna burutzeko epea eteteko eta denbora horretarako luzatzeko. Aldi baterako ezintasuneko gainerako kasuetan, eskatu ahal izango da jarduera gauzatzeko epea etetea eta luzatzea, baldin eta aldi baterako ezintasun hori gutxienez segidako 2 hilabetetako bada.

Aurrez jasotakoez besteko arrazoiengatik egindako eteteek edo paragrafo honetan ezarritako epetik kanpo jakinarazitakoek ez dute betearazpen epea luzatuko.

Jarduketa gauzatzeko epea eten eta luzatzeko eskaera bi hilabeteren epean egin beharko da, etenaldia eragin duen gertakaria gertatzen den egunetik zenbatzen hasita. Eskaerak Estatuko Ikerketa Agentziaren webgunean argitaratutako jarraibideekin bat egingo dira. Etendura eta luzapena organo emaileak baimendu beharko ditu, egokitzat jotako txostenak eskatu ahal izango dituelarik.

Etetea eta luzapena baimentzen direnean, ez dira diruz laguntzekoak izango erakunde onuradunak etenaldian egin ditzakeen kontratazioaren ondoriozko gastuak (ordainsaria eta Gizarte Segurantzaren ugazaben kuota).

12.3. Deialdi honen bidez kontratatutako langileen uko egiteak, bajak eta gainerako gorabeherak onuradunak jakinarazi beharko ditu, tesi zuzendariaren oniritziarekin, gertaera eragilearen ondorengo hiru egun baliodunen barruan. Eskaera egiteko, idazkia bidali beharko da rrh-inves.dgi@ehu.eus helbide elektronikora, kasu bakoitzean eskatzen diren egiaztagiriekin batera.

Horrez gain, kontratatutako ikertzaileak bere uko egitearen, bajaren edo gorabeheraren berri emango dio Irakasle eta Ikertzaileen arloko Errektoreordetzari.

12.4. Lan kontratua ondorengo arrazoietako batengatik etengo da:

- a) Kontratatuak berak uko egitea.
- b) Kontratuaren indarraldia amaitzea.
- c) Eskaeran adierazitako doktorego programan matrikulatutako pertsonaren izaera galtzea.
- d) Laguntza emateko aintzat hartutako betebeharrak bete ez edo baldintzak aldatzea, barne izanik doktorego programako matrikula edo eskaeran adierazitakoak ez diren beste tesi zuzendarikideekin aritzea, IA Eren baimen espresurik gabe.
- e) Tesi zuzendariak eta doktorego programaren arduradunak hala eskatuta, tesi zuzendariak eta doktorego programaren arduradunak abalaturako txostenak arrazoituz gero.
- f) Gerora sortutako bateraezintasunen batengatik.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteren epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerazko birjartze errekurtsoa jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko Errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluekin bat etorruta.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2024ko urtarrilaren 18an.

Inmaculada Arostegui Madariaga

Ikerketaren Arloko Errektoreordea

Vicerrectora de Investigación